

INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

***IBILGAILU BATEN TRANSMISIOAREN
KALKULU ETA DISEINUA***

3. DOKUMENTUA - KALKULUAK

Ikaslea: Garramiola Saizar, Jon

Zuzendaria: Arsuaga Berrueta, Mikel

Ikasturtea: 2018-2019

Data: Bilbon, 2019ko Ekainaren 27an

3. DOKUMENTUA: KALKULUAK

3.1. HASIERAKO DATUAK	3
3.2. INDAR ERRESISTENTEAK	4
3.2.1. Errodadurak eragindako indarra (F_e)	4
3.2.2. Aldapek eragindako indarra (F_a)	4
3.2.3. Ibilgailuaren inertzia dela eta sortutako indarra (F_i)	5
3.2.4. Haizeak eragindako indarra (F_h)	5
3.3. ENBRAGEA	6
3.3.1. Enbragearen dimentsioak	7
3.3.2. Enbragearen aukeraketa	8
3.3.3. Enbragearen ildoen kalkulua	9
3.4. ABIADURA KAXA	10
3.4.1. Transmisio erlazioen kalkulua	10
3.4.1.1. Lehen abiaduraren konprobaketa	13
3.4.1.2. Seigarren abiaduraren konprobaketa	14
3.4.2. Engranajeen kalkulua	15
3.4.2.1. Engranajeen hortz kopurua	15
3.4.2.2. Engranajeen modulua	19
3.4.2.3. Ardatzen arteko distantzia	24
3.4.2.4. Atzerako martxaz arduratzen diren engranajeen kalkulua	24
3.4.2.5. Engranajeen dimentsionaketa	26
3.4.2.6. Atzerako martxaz arduratzen diren engranajeen kokapena	29
3.4.2.7. Indarrak hortzetan	30
3.4.2.8. Pinoien konprobaketa erresistentzia kontuan izanda	33

3.4.3. Ardatzen kalkulua	39
3.4.3.1. Ardatz primarioa	40
3.4.3.2. Tarteko ardatza.....	42
3.4.3.3. Ardatz sekundarioa	53
3.4.3.4. Atzerako martxaren ardatza	65
3.4.4. Errodamenduen kalkulua.....	67
3.4.4.1. Tarteko ardatza.....	67
3.4.4.2. Ardatz sekundarioa	75
3.4.4.3. Ardatz primarioa	81
3.4.4.4. Ardatz sekundarioko gurpilentzako errodamenduak.....	83
3.4.5. Txabetak.....	89
3.4.6. Sinkronizatzaileen dimentsionamendua.....	95
3.4.6.1. Ildoen luzeraren neurketa.....	97
3.4.6.2. Sinkronizatzaileen marruskadura ahalmena.....	100
3.5. DIFERENTZIALA OSATZEN DUTEN ELEMENTUEN	
DIMENSIONAMENDUA	102
3.5.1. Sateliteen dimentsioak.....	103
3.5.2. Planetarioen dimentsioak	104
3.5.3. Pinoiaren dimentsioak.....	104
3.5.4. Koroaren dimentsioak.....	105
3.5.5. Pinoiaren ildoen luzera	105

3.1. HASIERAKO DATUAK

Kalkuluekin hasteko beharrezkoa da hasierako datuak eta parametroak ezagutzea. Informazio hau ibilgailuaren fitxa teknikitik lortu da.

Ibilgailuaren datuak:

<i>Peugeot 208 GTi</i>	
Potentzia maximoa (ZP) / kW / rpm	200/147/5800
Momentu bihurtzaile MAX (Nm) / rpm	275/1700
Motorraren kokapena	Aurrealdean, zeharka
Trakzioa	Aurreko trakzioa
Pisua (kg)	1160
0-100 km/h azelerazioa (s)	6,8
Zilindro kopurua / zilindrada (cm ³)	4 linean/1598
Abiadura kaxa	Eskuzkoa, 6 abiadura
Batazbesteko kontsumoa	5,4 l/100 km

Transmisio erlazioak:

1. abiadura	3,545 : 1
2. abiadura	1,920 : 1
3. abiadura	1,323 : 1
4. abiadura	1,026 : 1
5. abiadura	0,822 : 1
6. abiadura	0,681 : 1
Atzerako martxa	3,367 : 1

3.2. INDAR ERRESISTENTEAK

Lehenbiziko atal honetan ibilgailuaren mugimenduaren kontra egiten duten indar erresistenteak aztertuko eta kalkulatu dira. Horretarako, Francisco Muñoz Graciaren liburua erabiliko da.

Hauek dira kotxearen mugimenduari kontra egiten dioten indarrak:

- Errodadurak eragindako indarra
- Aldapek eragindako indarra
- Ibilgailuaren inertzia dela eta sortutako indarra
- Haizeak eragindako indarra

3.2.1. Errodadurak eragindako indarra (F_e)

Indar hau gurpilen eta errepidearen arteko kontaktua/marruskadura dela eta sortutakoa da. Indar honen kalkulua burutzeko honako ekuazioa erabiliko da:

$$F_e = (P_i + P_k) \cdot \mu_m$$

Non,

P_i : Kotxearen pisua

P_k : Baimendutako karga maximoa

μ_m : Marruskadura koefizientea = 0.03 hartuko da (normalean 0,02 eta 0,03 tartean ibiltzen da)

Hortaz:

$$F_e = (1160 + 490) \cdot 0,03 = 49,5 \text{ kg}$$

3.2.2. Aldapek eragindako indarra (F_a)

Indar hau ibilgailua aldapa bat igotzen ari denean agertzen da. Bezeroak definitutako aldapa maximoa erabiliko da kalkuluak egiteko: % 45. Honako ekuazioa erabiliko da:

$$F_a = (P_i + P_k) \cdot a_{max}$$

Non:

a_{max} kotxeak gainditu beharreko aldapa maximoa den (% 40)

Beraz:

$$F_a = (1160+490) \cdot 0,3 = 495 \text{ kg}$$

3.2.3. Ibilgailuaren inertzia dela eta sortutako indarra (F_i)

Indar hau kotxeak azeleratzen edo dezeleratzen duen bakoitzean agertzen da. Indar honen kalkulurako kotxeak 0 km/h-tik 100 km/h-ra igarotzean agertzen den inertzia izango da kontuan. Peugeot 208 GTi baten kasuan 6,8 segundo beharko dira abiadura hori lortzeko. Honako ekuazioak erabiliko dira:

$$F_i = m_i \cdot a$$

$$v = v_o + a \cdot t$$

Hortaz:

$$v_o = 0 \rightarrow a = \frac{v}{t}$$

$$v = 100 \frac{\text{km}}{\text{h}} * \frac{1 \text{ h}}{3600 \text{ s}} * \frac{1000 \text{ m}}{1 \text{ km}} = 27,78 \frac{\text{m}}{\text{s}}$$

$$a = \frac{\frac{27,78 \text{ m}}{\text{s}}}{6,8 \text{ s}} = 4,085 \text{ m/s}^2$$

$$F_i = m_i * a = 1160 \text{ kg} * 4,085 \frac{\text{m}}{\text{s}^2} = 4738,6 \text{ N} * \frac{1 \text{ kg}}{9,81 \text{ N}} = 483,04 \text{ kg}$$

3.2.4. Haizeak eragindako indarra (F_h)

Erresistentzia aerodinamikoaren indarra haizearen presio dinamikoarekiko eta kotxearen aurrealdeko azalerarekiko proportzionala da. Horretaz gain, indar hau kalkulatzeko orduan erresistentzia aerodinamikoaren koefizientea ere kontuan izan behar da (C_x).

Indar hau ibilgailua mugimenduan dagoenean agertzen da, eta bere kalkulua egiteko honako ekuazioa erabiliko da:

$$F_h = \frac{v_{max}^2}{2 * g} * \rho_h * a_i$$

Non:

v_{max} = Ibilgailuaren abiadura maximoa

ρ_h = Haizearen dentsitatea

a_i = Ibilgailuaren aurrealdeko azalera eraginkorra

$$C_x = \text{Kofiziente aerodinamikoa} = 0,34$$


C_x , esan bezala, kofiziente aerodinamikoa da. Fluido batetan dagoen gorputz batek bere forma dela eta mugimenduarekiko aurkezten duen zailtasuna da. Fabrikatzaileak esaten duenari jarraituz, kotxe honen kofiziente aerodinamikoa 0,34 da, eta bere azalera eraginkorra 2,12 m² (zabalera: 1739 mm; altuera: 1460 mm). Haizearen dentsitate bezala 1,20 kg/m³ hartuko da eta kotxearen abiadura maximoa, berriz, 230 km/h-koa izango da. Guztia horrela:

$$v_{max} = 230 \frac{km}{h} * 1000 \frac{m}{1 km} * 1 \frac{h}{3600 s} = 63,89 m/s$$

$$F_h = \frac{63,89^2 \frac{m}{s} * 1,2 \frac{kg}{m^3} * 2,12 m^2 * 0,34}{2 * 9,81 m/s^2} = 179,95 kg$$

3.3. ENBRAGEA

Enbragea motorrak sortutako momentu bihurtzailea transmititzeko erabiltzen den mekanismoa da. Bi ardatzen arteko lotura bezala jokutzen du, eta martxan dagoenean ardatz bien momentu bihurtzaileak eta abiadura angeluarrak berdintzen ditu, ardatz bien potentzia berdinduz. Ardatzak era leun eta progresiboan elkartzeko erabiltzen da orokorrean, ardatzek era uniforme biratzen amaitzen dutelarik. Era honetan, motorrak sortutako potentzia abiadura kaxara transmititzen da. Aipatu behar da lotura hau behin behinekoa dela, hau da, ez dela finkoa.



Ardatzak elkartu edo banatzeko aukera izatea oso interesgarria da hainbat kasutan:

- Motorra karga gabe martxan jartzeko
- Martxa aldaketa egiteko
- Ardatza momentu eragile gabe balaztatzeko

Proiektu honetan diseinatuko den enbragea frikziozkoa izango da.

3.3.1. Enbragearen dimentsioak

Francisco Muñoz Graciak Cálculo teórico-práctico de los elementos y grupos del vehículo industrial y automóvil liburuan adierazten duen bezala beharrezkoa da enbrageak transmititu dezakeen momentu bihurtzailea (M_e) motorrak garatu dezakeen momentu bihurtzaile maximoa (M_m) baino handiagoa izatea. Izan ere, enbrageak lan egiten duen heinean diskoen arteko marruskadura koefizientearen balioa murriztuz joango da, beronen ahalmena txikituz. Gainera, enbragearen malgukiak ere deformazioak jasango dituzte mekanismoan emango diren tenperatura altuak medio, eta honek atal hauek egiten duten presioa jaitsi dezake, enbragearen lan egiteko gaitasuna murriztuz. Horregatik, enbrageak garatu beharreko momentu hori kalkulatzeko 1,3 eta 1,5 tartean dagoen segurtasun koefiziente bat erabiltzen da. Kasu honetan era kontserbakorrean jokatu da eta 1,5 hartuko da. Beraz:

$$M_e = 1,5 * 275 \text{ N.m} = 4204,89 \text{ kg.cm}$$

Liburu horretan Francisco Muñoz Graciak esaten duenez, erabilera leun batetarako presioa 2,4 kg/cm² da eta marruskadura koefizientearen balioa 0,4. Hau jakinda, enbragearen diskoen kanpoko erradioa kalkulatu daiteke:

$$R_k = \sqrt[3]{\frac{M_e}{2,75 * P_{max} * \mu}} = \sqrt[3]{\frac{4204,89 \text{ kg.cm}}{2,75 * 2,4 \text{ kg/cm}^2 * 0,4}} = 11,68 \text{ cm}$$

Praktikan diskoen kanpoko erradioaren eta barne erradioaren artean honako erlazioa hau erabiltzen da:

$$R_b = 0,7 * R_k$$

Beraz:

$$R_b = 0,7 * R_k = 0,7 * 11,68 = 8,176 \text{ cm}$$

Behin hau eginda, diskoak jasan ahalko duen presio, indar axial eta momentu bihurtzaile maximoa kalkulatu da higadura uniformeko hipotesia kontuan izanda. Hipotesi hau erabiltzen da berau kontserbakorra delako eta presio konstanteko hipotesia soilik enbrage berrietara mugatuta dagoelako.

Presioaren kalkulua:

$$P = P_{max} * \frac{R_b}{R_k} = 2,4 * \frac{8,176}{11,68} = 1,68 \text{ kg/cm}^2$$

Indar axialaren kalkulua:

$$F_a = \int_{r_b}^{r_k} P * dA = \int_{r_b}^{r_k} d * F_a = \int_{r_b}^{r_k} \left(\frac{P_{max} * r_b}{r} \right) * 2\pi * r * dr = 2\pi * P_{max} * r_b * (r_k - r_b)$$

$$F_a = 2\pi * 2,4 * 8,176 * (11,68 - 8,176) = 432,01 \text{ kg}$$

Enbrageak transmititu dezakeen momentu bihurtzaile maximoa:

$$T_{roz} = \int_{r_b}^{r_k} r * dF_n = \int_{r_b}^{r_k} r * \mu * P * dA = \int_{r_b}^{r_k} r * \mu * P_{max} * \frac{r_b}{r} * 2\pi * dr$$

$$T_{roz} = \pi * \mu * P_{max} * r_b * (r_k^2 - r_{eb}^2) = \frac{n * \mu * F_a * (r_k + r_b)}{2}$$

Non:

n = Gainazal kopurua

μ = Marruskadura koefizientea

F_a = Indar axiala

$$T_{roz} = \frac{2 * 0,4 * 432,01 * (11,68 + 8,176)}{2} = 3431,19 \text{ kg.cm} = 336,60 \text{ N.m}$$

































$$T_{motorra} = 275 \text{ N.m} < T_{roz} = 336,60 \text{ N.m}$$

Peugeot 208 GTi-aren motorrak ematen duen momentu bihurtzaile maximoa 275 N.m denez eta enbrageak transmititu dezakeena 336,60 N.m denez diseinua egokia dela esan daiteke.

3.3.2. Enbragearen aukeraketa

SACHS fabrikatzailearen katalogoa hartuta:

PEUGEOT

RCZ		03.10 -					
1.6 16V, 115 kW	03.10-	5FV(EP6CDT)	 3000 990 423 			235	26
			 2294 001 583 	enthält Schwungradbefestigungsschrauben / includes bolt for flywheel mounting	(183)	235	
			 6284 605 059 	->Orga 12509 ->02.2011			
			 6284 605 057 	Orga 12510-> 02.2011->			
1.6 16V, 147 kW	06.10-	EP6CDTX	 3000 990 423 			235	26
			 2294 001 583 	enthält Schwungradbefestigungsschrauben / includes bolt for flywheel mounting	(183)	235	
			 6284 605 059 	->Orga 12509 ->02.2011			
			 6284 605 057 	Orga 12510-> 02.2011->			
1.6 THP 270	06.13-	5FG(EP6CDTR)	 2294 002 183 	enthält Schwungradbefestigungsschrauben / includes bolt for flywheel mounting	(183)	235	
			 3182 600 199 	Füllmedium: Bremsflüssigkeit / Fill Medium: Brake Fluid	(62)		
			 6284 605 057 	Immer erneuern / Renew everytime	(73)		
			 3000 950 914 			240	21
2.0 HDi	03.10-	RHH (DW10CTED4)	 2294 002 028 	enthält Schwungradbefestigungsschrauben / includes bolt for flywheel mounting	(183)	240	
			 6283 600 562 				
			 6284 010 601 	->Orga 12565 ->04.2011			
			 6284 605 014 	Orga 12566-> 04.2011->			

Aukeratutako enbragearen diametroa (235 mm) zuzena da, kalkuluetan beharrezkoa den enbragearen erradioa 116,8 mm dela kalkulatu baita. Hortaz, beharrezkoa den diametro minimoa 233,5 mm da.

3.3.3. Enbragearen ildoen kalkulua

Enbragearen diskoak abiadura kaxaren ardatz primarioarekin lotzeko ildoak erabiltzen dira. Ildo hauen bidez lotura oso sendoa lortu behar da, bertatik momentu bihurtzaile handia transmitituko baita. DIN 5480 araua jarraituz, ildoen luzera honako formula honen bidez lortzen da:

$$L_t = K * \frac{F_u}{h * P * z}$$

Non:

Z = Hagin kopurua

L_t = Ildoen luzera

F_u = Ardatzean dagoen indar tangenziala

h = Haginen altuera

P = Presioa artekan = 100 N/mm² hartuko da

K = Sostengu faktorea (1,35 Decker-ek “*Elementos de máquinas*”-en esaten duenez)

35 mm-ko diametroa duen ardatz batetik abiatuta ($R_{\text{prim}} = 17,5$ mm) eta modulu bezala 2 hartuta indar tangenziala kalkulatu da:

$$F_u = \frac{T}{R_{prim}} = \frac{275 \text{ N/m}}{0,0175 \text{ m}} = 15714,28 \text{ N}$$

Datu horiekin (ardatzaren diametroa eta modulua) DIN 5480 arauaren tauletara joanda:

d_B mm	Number of teeth z for module m													
	0,5	0,6	0,75	0,8	1	1,25	1,5	1,75	2	2,5	3	4	5	6
35	68	57	45	42	34	26	22	18	16	12	10	7		

$Z = 16$ dela ikus daiteke. Honekin:

$$L_t = K * \frac{F_u}{h * P * z} = 1,35 * \frac{15714,28 \text{ N}}{2 \text{ mm} * 100 \frac{\text{N}}{\text{mm}^2} * 16} = 6,63 \approx 7 \text{ mm}$$

3.4. ABIADURA KAXA

Hasieran aipatu den bezala abiadura kaxa motorrak ematen duen momentu bihurtzailea eraldatzeaz arduratzen da. Mekanismo honek gehienetan motorrak ematen duen momentu bihurtzailea handitzen du: ardatzek indar gehiago izango dute baina ordainetan geldoago biratuko dute. Abiadura kaxarik gabe ia ezinezkoa izango litzateke kalkuluetako lehen atalean kalkulatuak indar erresistenteak gainditzea.

Abiadura kaxaren bidez gidariak nahi duen martxa aukeratu dezake agertzen diren egoera ezberdinei aurre eginez. Transmisio erlazioa oso txikia bada ibilgailuak aldapa handiak igo ahalko ditu, baina bere abiadura txikia izango da. Transmisio erlazioa handia bada, aldiz, kotxeak abiadura handia izango du baina ordainetan ez da gai izango aldapei aurre egiteko.

Horixe da abiadura kaxaren funtzioa: beharren arabera martxa bat ala beste bat aukeratzeko gaitasuna ematea.

3.4.1. Transmisio erlazioen kalkulua

Diferentzialaren bidez zuzen gune batetan kotxearen gurpil guztiek abiadura berdinez biratzea lortzen da. Eta ez hori bakarrik. Kotxea kurba batetan sartzen denean gurpilen biraketa egokitzea ere mekanismo honen funtzioetako bat da.

Beharrezkoa da diferentzialak duen erlazioa ezagutzea abiaduren erlazioak ezagutzeko. Horretarako, Francisco Muñoz Graciak bere liburuan adierazten dituen honako ekuazioak erabiliko dira:

$$r_d = \frac{W_{motorra}}{r_6 * n_g}$$

$$w_g = \frac{v_{max} * 60}{\pi * D_g}$$

Non:

r_d = Diferentzialaren erlazioa

D_g = Gurpilaren diametroa

w_g = Gurpilen biraketa abiadura

v_{max} = Kotxearen abiadura maximoa

r_6 = 6. abiaduraren erlazioa

n_g = Gurpilen abiadura angeluarra

$w_{motorra}$ = Motorraren biraketa abiadura

Gurpilen abiadura angeluarra kalkulatzeko beharrezkoak diren datuak kotxearen fitxa teknikitaterako dira. Peugeot 208 GTi-aren gurpilak: 205/45 R17.

Gurpilaren Zabalera: 205 mm

Gurpilaren Perfila: % 45

Haguna (llanta): 17 hazbete

Honekin gurpilaren diametroa kalkulatu daiteke:

$$D_g = 17 \text{ hazbete} * \frac{25,4 \text{ mm}}{1 \text{ hazbete}} + 2 * 0,45 * 205 = 616,3 \text{ mm}$$

Halere ez da ahaztu behar hau diametro ideala dela eta kotxearen pisuak eragina duela gurpilaren diametro errealean. Horregatik 0,95-ekin bidertuko dugu:

$$D_g = 0,95 * 616,3 = 585,48 \text{ mm} = 0,585 \text{ m}$$

$$v_{max} = 230 \frac{\text{km}}{\text{h}} * \frac{10^3}{1\text{km}} * \frac{1\text{h}}{3600\text{s}} = 63,89 \text{ m/s}$$

Beraz:

$$w_g = \frac{v_{max} * 60}{\pi * D_g} = \frac{63,89 * 60}{\pi * 0,585} = 2085,83 \text{ bira/min}$$

Ibilgailuaren abiadura maximoa denean (63,89 m/s), beraz, gurpilek 2085,83 bira/minutuko abiadura izango dute. Gainera, jakinikoa da hau 6. abiaduran izango dela (transmisio erlazioa 6. abiaduran 0,681) eta momentu horretan motorrak 5800 bira/minutuko abiadura izango duela. Hori horrela:

$$r_d = \frac{w_{motorra}}{r_6 * n_g} = \frac{5800}{0,681 * 2085,83} = 4,083$$

Balio hau zentzuzkoa da, normalean 4 inguruan ibiltzen baita (kotxearen abiadura maximoaren eta martxa kantitatearen arabera).

Datu hauekin abiadura bakoitzean gurpilek duten abiadura angeluarra eta kotxearen abiadura kalkulatu daitezke. Lehenbizi gurpilen abiadura angeluarra kalkulatu da, behin hau izanda ibilgailuaren abiadura lortzeko.

$$w_g = w_{motorra} * \frac{1}{r_d * i_{ak}}$$

$$v_k = w_g * R_g$$

Non,

w_g = Gurpilaren abiadura angeluarra

$w_{motorra}$ = Motorraren abiadura angeluarra

r_d = Diferentzialaren transmisio erlazioa

i_{ak} = Abiadura bakoitzaren transmisio erlazioa

R_g = Gurpilaren erradioa

1. abiadura →

$$w_1 = 5800 * \frac{1}{3,545 * 4,083} = 400,71 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_1 = \frac{400,71 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 44,19 \text{ km/h}$$

2. abiadura →

$$w_2 = 5800 * \frac{1}{1,920 * 4,083} = 739,85 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_2 = \frac{739,85 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 81,58 \text{ km/h}$$

3. abiadura →

$$w_3 = 5800 * \frac{1}{1,323 * 4,083} = 1073,71 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_3 = \frac{1073,71 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 118,40 \text{ km/h}$$

4. abiadura →

$$w_4 = 5800 * \frac{1}{1,026 * 4,083} = 1384,53 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_4 = \frac{1384,53 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 152,67 \text{ km/h}$$

5. abiadura →

$$w_5 = 5800 * \frac{1}{0,822 * 4,083} = 1728,13 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_5 = \frac{1728,13 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 190,56 \text{ km/h}$$

6. abiadura →

$$w_6 = 5800 * \frac{1}{0,681 * 4,083} = 2085,94 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_6 = \frac{2085,94 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 230,02 \text{ km/h}$$

Ikus daitekeenez, 6. abiadurarentzako kalkulatu den abiadura maximoa bat dator kotxearen abiadura maximoarekin. Hortaz, kalkuluak ontzat jo daitezke.

Atzerako martxa →

$$w_{am} = 5800 * \frac{1}{3,367 * 4,083} = 421,90 \frac{\text{bira}}{\text{minutu}}$$

$$v_6 = \frac{421,90 * \frac{2\pi}{60} * 0,2925}{\frac{1000}{3600}} = 46,52 \text{ km/h}$$

3.4.1.1. Lehen abiaduraren konprobaketa

Lehen abiaduraren erlazioa kotxeak jasan ditzakeen indar erresistenteak garaitzeko nahikoa dela konprobatuko da jarraian. Hori burutzeko, batetik indar erresistenteek gurpiletan sortuko duten momentu bihurtzailea kalkulatu da. Bestetik, momentu bihurtzaile hori garaitzeko beharrezkoa den erlazio minimoa kalkulatu da. Beraz:

$$F_R = F_e + F_a + F_i$$

$$T_R = \frac{F_R * D_g}{2}$$

Non:

T_R = Gurpil eragileak jasaten duen momentu erresistentea

F_R = Gurpil eragileak jasaten duen erresistentzia indar totala

Beraz:

$$F_R = 49,5 + 495 + 483,04 = 1027,54 \text{ kgf}$$

$$T_R = \frac{F_R * D_g}{2} = \frac{1027,54 * 0,585}{2} = 280 \text{ kgf} * m * \frac{9,81 \text{ N}}{1 \text{ kgf}} = 2746,84 \text{ N.m}$$

Esan bezala motorrean sortutako momentu bihurtzailea gurpilek euren mugimenduaren kontra aurkitzen duten momentu bihurtzailea baino handiagoa izan behar da. Aipatu beharra dago, baita, motorrak sortutako potentziaren zati bat ez dela gurpiletara iritsiko, transmisio prozesuan zehar galduko baita (bero moduan, bibrazio moduan, etab.). Motorrak sortuko duen potentziaren %95a gurpiletara iritsiko dela suposatuko da. Hortaz, $\mu = 0,95$ izango da.

$$P_g = P_m * \mu$$

$$T_{gurpila} * w_{gurpila} = T_{motorra} * w_{motorra} * \mu$$

$$r_d * i_{ak} = \frac{T_{motorra}}{T_{gurpila}} * \mu$$

Beraz,

$$T_{gurpila} = \frac{T_{motorra} * \mu}{r_d * i_{ak}} = \frac{275 * 0,95}{\frac{1}{4,083} * \frac{1}{3,545}} = 3781,39 \text{ N.m}$$

Konprobaketa burutuz:

$$T_{gurpila} = 3781,39 \text{ N.m} > T_R = 2746,84 \text{ N.m}$$

Hau horrela, gurpilek jasotzen duten momentu bihurtzailea gai da jasaten duten momentu bihurtzaile erresistentea gainditzeko.

3.4.1.2. Seigarren abiaduraren konprobaketa

Lehenbiziko abiaduraz egin den bezala, seigarren abiadurarekin ere prozedura bera erabiliko da konprobaketa egiteko. Kasu honetan haizearen indarra kontuan izango da, ez ordea aldapen eragina, seigarren abiadura ez baita aldapak daudenean erabiltzen, eta ezta inertziaren eragina ere, abiadura honetan kotxean ematen diren azelerazioak ez baitira kontuan hartzekoak.

$$F_R = F_e + F_h$$

$$F_R = 49,5 + 179,95 = 229,45 \text{ kgf}$$

$$T_R = \frac{F_R * D_g}{2} = \frac{229,45 * 0,585}{2} = 67,11 \text{ kgf} \cdot \text{m} \cdot \frac{9,81 \text{ N}}{1 \text{ kgf}} = 658,39 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Gurpilak seigarren abiaduran jasoko duen momentu bihurtzailea:

$$T_{gurpila} = \frac{T_{motorra} * \mu}{r_d * i_{ak}} = \frac{275 * 0,95}{\frac{1}{4,083} * \frac{1}{0,681}} = 726,41 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Konprobaketa burutuz:

$$T_{gurpila} = 726,41 \text{ N} \cdot \text{m} > T_R = 658,39 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Konprobaketa hauekin gurpilek jasotzen duten momentu bihurtzailea euren mugimenduari kontra egiten dion momentu bihurtzailea baino handiagoa dela ondorioztatu da.

3.4.2. Engranajeen kalkulua

Atal honetan engranajeen dimentsionamendua burutuko da: hortz kopurua, modulua, diametroa, angeluak,... Jakinikoa denez, engranajeek motorrak sortutako momentu bihurtzailea transmititzen dute eta abiadura bakoitzean beharrezkoak diren erlazioak definitzen dituzte.

3.4.2.1. Engranajeen hortz kopurua

Abiadura bakoitzaren erlazioa kalkulatu ostean erlazio horiek betetzeko gurpilek izan behar duten hortz kopurua zehaztuko da. Ahal den neurrian gurpilen diametroa ahalik eta txikiena izatea komeni da, hau handia izateak kostua handituko bailuke eta bolumena/pisua handituko bailituzke. UNE 18016 araua jarraituko da.

Engranajeen arteko kontaktuan arazoak ekiditeko eta hauen hortzen higadura saihesteko ardatzen arteko distantzia ahalik eta zehatzena izatea komeni da. Horregatik honako baldintza hauek bete behar dira:

- Elkarren arteko kontaktua izango duten engranajeek modulu bera izango dute.
- Ardatzen arteko distantzia berdina izan behar da gurpil bikote bakoitzarentzat.

Engranajeak zilindrikoak eta hortz helikoidalduak izango dira, hortz zuzendunek baino higadura eta bibrazio gutxiago eragiten baitute. Gainera, isilagoak dira. Helizearen angelua (β) 20° -tako dela kontsideratuko da. Hortaz, interferentziak ekiditeko honako hau bete beharko da:

$$d = \frac{m * (Z + Z')}{2 * \cos \beta}$$

Non:

d = Kontaktuan dauden gurpilen zentroen arteko distantzia

Z = Pinoiaren hortz kopurua

Z' = Koroaren hortz kopurua

m = Modulua

β = Helizearen angelua

Engranaje bikoteen hortzen batuketa konstante mantenduko da:

$$Z + Z' = \frac{2 * d * \cos \beta}{m} = kte$$

Engranajeen hortz kopuruaren kalkuluarekin hasteko honako ekuazio hau jarraituko da interferentziak saihesteko:

$$Z_n = \frac{Z}{\cos \beta_a^3} \geq 14$$

Non:

Z_n = Hortz kopuru birtuala = 14

Z = Hortz kopuru erreala

β = Helizearen angelua = 20°

Hortaz,

$$Z = Z_n * \cos \beta^3$$

$$Z = 11,61 \approx 12 \text{ hertz}$$

Hartze konstantea \rightarrow

Transmisio erlazioa 1 : 1 izango da eta egiteko honetaz arduratuko diren bi gurpilek 27 hertz izango dituzte.

$$Z_{hk} = 27 \text{ hertz}$$

$$Z'_{hk} = 27 \text{ hertz}$$

1. abiadura \rightarrow

Kalkulatu berri den balioa aintzat hartuta, balio bera emango zaio lehenbiziko martxako pinoiari: $Z_p = 12$ hertz. Behin hau eginda, transmisioa erlazioa erabiliko da koroaren hertz kopurua definitzeko. Ez da ahaztu behar hortzen arteko erlazioa transmisio erlazioa izango dela.

$$i = \frac{Z'}{Z}$$

Esan bezala, lehenbiziko abiadurarentzako hertz kopurua (pinoiarena) 12 izango da. Transmisio erlazioa, berriz, 3,545 izango da. Hori horrela:

$$Z' = 12 * 3,545 = 42,54 \approx 42 \text{ hertz}$$

$$Z + Z' = 12 + 42 = 54 \text{ hertz}$$

Lehenbiziko abiaduran, hortaz, koroaren hertz kopurua 42 hertz izango da. Pinoiaren eta koroaren hortzen batura, bestalde, 54 izango da. Balio hau konstante mantenduko da engranaje bikote guztietan. Gainontzeko abiadurez arduratuko diren gurpilen hertz kopurua kalkulatzeko prozedura bera erabiliko da.

2. abiadura \rightarrow

Transmisio erlazioa jakinda (1,920 : 1) eta pinoiaren eta koroaren hortzen batura 54 hertz izan behar dela jakinda:

$$\begin{cases} i_2 = \frac{Z'_2}{Z_2} = 1,920 \\ Z_2 + Z'_2 = 54 \end{cases}$$

Sistema ebatzita:

$$Z_2 = 18 \text{ hertz}$$

$$Z'_2 = 36 \text{ hertz}$$

3. abiadura \rightarrow

Transmisio erlazioa jakinda (1,323 : 1) eta pinoiaren eta koroaren hortzen batura 54 hortz izan behar dela jakinda:

$$\begin{cases} i_3 = \frac{Z'_3}{Z_3} = 1,323 \\ Z_3 + Z'_3 = 54 \end{cases}$$

Sistema ebatzita:

$$Z_3 = 23 \text{ hortz}$$

$$Z'_3 = 31 \text{ hortz}$$

4. abiadura \rightarrow

Transmisio erlazioa jakinda (1,026 : 1) eta pinoiaren eta koroaren hortzen batura 54 hortz izan behar dela jakinda:

$$\begin{cases} i_4 = \frac{Z'_4}{Z_4} = 1,026 \\ Z_4 + Z'_4 = 54 \end{cases}$$

Sistema ebatzita:

$$Z_4 = 26 \text{ hortz}$$

$$Z'_4 = 28 \text{ hortz}$$

5. abiadura \rightarrow

Transmisio erlazioa jakinda (0,822 : 1) eta pinoiaren eta koroaren hortzen batura 54 hortz izan behar dela jakinda:

$$\begin{cases} i_5 = \frac{Z'_5}{Z_5} = 0,822 \\ Z_5 + Z'_5 = 54 \end{cases}$$

Sistema ebatzita:

$$Z_5 = 29 \text{ hortz}$$

$$Z'_5 = 25 \text{ hortz}$$

6. abiadura →

Transmisio erlazioa jakinda (0,681 : 1) eta pinoiaren eta koroaren hortzen batura 54 hortz izan behar dela jakinda:

$$\begin{cases} i_6 = \frac{Z'_6}{Z_6} = 0,681 \\ Z_6 + Z'_6 = 54 \end{cases}$$

Sistema ebatzita:

$$Z_6 = 32 \text{ hortz}$$

$$Z'_6 = 22 \text{ hortz}$$

Hortz kopurua zenbaki oso bat izan behar denez aldaketa txiki batzuk egin behar izan dira eta ondorioz transmisio erlazioak zertxobait aldatu dira. Jarraian aldaketa hauek transmisioan duen eragina aztertuko da, lortutako balioak hasierako balioekin konparatuko dira eta kalkuluak egokiak diren ala ez arrazoituko da.

Transmisio erlazio teorikoa	Hortz kopurua	Transmisio erlazio erreala
$i_1 = 3,545$	$Z_1 = 12$ $Z_1' = 42$	$i_1 = 3,5$
$i_2 = 1,920$	$Z_2 = 18$ $Z_2' = 36$	$i_2 = 2$
$i_3 = 1,323$	$Z_3 = 23$ $Z_3' = 31$	$i_3 = 1,348$
$i_4 = 1,026$	$Z_4 = 26$ $Z_4' = 28$	$i_4 = 1,077$
$i_5 = 0,822$	$Z_5 = 29$ $Z_5' = 25$	$i_5 = 0,862$
$i_6 = 0,681$	$Z_6 = 32$ $Z_6' = 22$	$i_6 = 0,687$

Ikus daitekeenez, balio errealak ez daude balio teorikoetatik urrun eta, beraz, egingako kalkuluak egokiak direla ondorioztatu daiteke.

3.4.2.2. Engranajeen modulua

Moduluaren kalkulua egiteko *Makinen Diseinua* ikasgaiaren erabilitako liburuan datorren formula erabiliko da:

$$m \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * N * (i + 1) * (\cos \beta)^4}{K_{onar} * Z^2 * \Psi * \cos \alpha * \sin \alpha * n * i}}$$

Non:

m = modulua

N = Kotxearen potentzia = 275 ZP

i = transmisio erlazioa

β = Helizearen angelua = 20°

K_{onar} = Presio onargarria

Z = Hertz kopurua

Ψ = Gidatze faktorea

α = Eraso angelua

n = abiadura angeluarra

Kalkuluak burutu aurretik abiadura bakoitzaren funtzionamendu orduak definitu behar dira. Ibilgailu baten transmisio sistema oro har 300000 km-tarako diseinatzen da. Batz besteko abiadura bezala 60 km/h-ko balioa hartuko da. Datu horiekin abiadura kaxaren iraupena ezagutu daiteke:

$$Iraupena = \frac{300000 \text{ km}}{60 \text{ h}} = 5000 \text{ ordu}$$

Abiadura bakoitzari iraupen jakin bat esleituko zaio jarraian:

1. *abiadura*: 400 ordu

2. *abiadura*: 1100 ordu

3. *abiadura*: 1100 ordu

4. *abiadura*: 1100 ordu

5. *abiadura*: 900 ordu

6. *abiadura*: 250 ordu

Atzerako martxa: 150 ordu

Materialari dagokionez honako hau aukeratu da: 20MnCr5 altzairu tenplatu, $K = 80 \text{ kg/cm}^2$ -ko erresistentziaduna.

K erresistentziaren balioa funtzionamendu orduen eta materialaren araberako denez, jarraian ageri den taula erabiliko da interpolazioak egin eta K-ren balioa kalkulatzeko:

Para un valor de h diferente de 5000 horas, el valor de K_{adm} se hará = φK_{5000} . Los valores se extraen de la siguiente tabla										
Horas servicio h	150	312	625	1200	2500	5000	10000	40000	80000	150000
φ	3,2	2,5	2	1,6	1,25	1	0,8	0,5	0,4	0,32

$$K_{1,onar} = K_{onar} * \varphi_1 = 80 * 2,36 = 188,8 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{2,onar} = K_{onar} * \varphi_2 = 80 * 1,67 = 133,6 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{3,onar} = K_{onar} * \varphi_3 = 80 * 1,67 = 133,6 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{4,onar} = K_{onar} * \varphi_4 = 80 * 1,67 = 133,6 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{5,onar} = K_{onar} * \varphi_5 = 80 * 1,81 = 144,8 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{6,onar} = K_{onar} * \varphi_6 = 80 * 2,77 = 221,6 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{am,onar} = K_{onar} * \varphi_{am} = 80 * 3,2 = 256 \text{ kg /cm}^2$$

$$K_{hk,onar} = K_{onar} = 80 \text{ kg /cm}^2$$

Gida faktoreari dagokionez, $\Psi = 10$ balioa erabiliko da kotxeak ohiko erabilera eta baldintzak izango baititu.

factor de guiado Ψ	
Flancos en bruto, poca velocidad y montaje deficiente	5
Calidad y condiciones normales	10
Tallado muy exacto, montaje muy preciso y buen asiento de cojinetes y apoyo rígido de estos	15-20 (casos excepcionales hasta 30)

Ibilgailuaren potentzia 200 ZP da eta erabiliko den abiadura angeluarra 4000 bira/minutuko izango da. Motorrak 1700 bira/minututik 4000 bira/minutura bitartean emango du momentu bihurtzaile maximoa (275 N.m), baina egoera bortitzena w maximoa denean ematen denez, datu hori erabiliko da moduluak definitzeko. Aipatzekoa da, baita, hortz gutxien duen gurgila hartu dela kalkuluak burutzeko.

Hartze konstantea \rightarrow

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_{hk} = 1$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{hk,onar} = 80 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_{hk} \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (1 + 1) * (\cos 20)^4}{80 * 27^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 1}} =$$

$$m_{hk} = 0,391 \text{ cm} = 3,91 \text{ mm}$$

1. abiadura →

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_1 = 3,5$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{1,onar} = 188,8 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_1 \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (3,5 + 1) * (\cos 20)^4}{188,8 * 12^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 3,5}} =$$

$$m_1 = 0,435 \text{ cm} = 4,35 \text{ mm}$$

2. abiadura →

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_2 = 2$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{2,onar} = 133,6 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_2 \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (2 + 1) * (\cos 20)^4}{133,6 * 18^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 2}} =$$

$$m_2 = 0,365 \text{ cm} = 3,65 \text{ mm}$$

3. abiadura →

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_3 = 1,348$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{3,onar} = 133,6 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_3 \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (1,348 + 1) * (\cos 20)^4}{133,6 * 23^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 1,348}} =$$

$$m_3 = 0,350 \text{ cm} = 3,50 \text{ mm}$$

4. abiadura \rightarrow

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_4 = 1,077$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{4,onar} = 133,6 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_4 \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (1,077 + 1) * (\cos 20)^4}{133,6 * 26^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 1,077}} =$$

$$m_4 = 0,333 \text{ cm} = 3,33 \text{ mm}$$

5. abiadura \rightarrow

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_5 = 0,862$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{5,onar} = 144,8 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_5 \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (0,862 + 1) * (\cos 20)^4}{144,8 * 25^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 0,862}} =$$

$$m_5 = 0,346 \text{ cm} = 3,46 \text{ mm}$$

6. abiadura \rightarrow

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_6 = 0,687$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{\delta,onar} = 221,6 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_6 \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (0,687 + 1) * (\cos 20)^4}{221,6 * 22^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 0,687}} =$$

$$m_6 = 0,341 \text{ cm} = 3,41 \text{ mm}$$

Ikus daitekeenez, moduluaren balio murriztaileena lehenbiziko abiaduran ematen da: $m > 4,35 \text{ mm}$. Beraz, hortz guztietan modulu bezala 5 mm erabiltzea erabaki da. 1 serieko engranajeak erabiliko dira.

3.4.2.3. Ardatzen arteko distantzia

Distantzia hau bat etorriko da kontaktu egingo duten gurpilen zentroen arteko distantziarekin eta konstante mantenduko da ardatz osoan zehar. Ardatzen arteko distantzia kalkulatzeko honako formula erabiliko da:

$$d = R + R' = \frac{m}{2} * \frac{Z + Z'}{\cos \beta}$$

$$d = \frac{5}{2} * \frac{54}{\cos 20} = 143,664 \text{ mm}$$

3.4.2.4. Atzerako martxaz arduratzen diren engranajeen kalkulua

Atzerako martxa hortz zuzena duten 3 gurpilez osatuta dago: pinoia, koroa eta hauen artean kokatuko den eta biraketaren norantza aldatzeaz arduratuko den gurpila.

Lehenbiziko abiaduraz egin den bezala, atzerako martxaz ere prozesu bera jarraituko da. Gurpilen hortz kopurua kalkulatu da, ondoren modulua definitu da eta, azkenik, gurpilen arteko distantzia kalkulatu da. Hortz kopuru minimoa lehen definitu den berdina izango da: 12. Hauxe izango da Z_{am} gurpilak izango duen hortz kopurua.

$$i_{am} = \frac{Z'_{am}}{Z_{am}} = 3,367$$

$$Z'_{am} = Z_{am} * 3,367 = 40 \text{ hortz}$$

Hirugarren gurpila (biraketa norantza aldatzeaz arduratzen dena) pinoiaren eta koroaren artean kokatzen. Gurpil honen dimentsioak pinoiaren berdinak izango dira diseinua erraztu eta kostua gutxitzeko.

Pinoia-Norantza aldatzeaz arduratzen den engranajea →

Aurretik burutu den prozesu bera jarraituko da, ezberdintasun bakarrarekin: kasu honetan $\beta = 0^\circ$ izango da, hortzak zuzenak izango baitira.

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_{am} = 1$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{am,onar} = 256 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_{am} \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (1 + 1) * (\cos 0) ^4}{256 * 12^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 1}} =$$

$$m_{am} = 0,494 \text{ cm} = 4,94 \text{ mm}$$

Norantza aldatzeaz arduratzen den engranajea-Koroa →

Berdin. Kasu honetan ere aldaketa bakarra $\beta = 0^\circ$ dela izango da, hortz zuzeneko gurpilak baitira.

$$N = 200 \text{ ZP}$$

$$i_{am} = 3,367$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutu}$$

$$\Psi = 10$$

$$K_{am,onar} = 256 \text{ kg/cm}^2$$

$$m_{am} \geq \sqrt[3]{\frac{143240 * 200 * (3,367 + 1) * (\cos 0) ^4}{256 * 12^2 * 10 * \cos 20 * \sin 20 * 4000 * 3,367}} =$$

$$m_{am} = 0,428 \text{ cm} = 4,28 \text{ mm}$$

Modulu handiena Pinoia-Norantza aldatzeaz arduratzen den engranajea bikoteak definitzen du: 4,94 mm. Hortaz, gurpilentzako 5 mm-ko modulua erabiliko da. 1 serieko engranajeak erabiliko dira kasu honetan ere.

Kalkulatutako balioak zuzenak diren konprobatuko da jarraian. Ardatzen arteko distantzia (oraintxe kalkulatu berri dena) pinoiaren eta koroaren erradioen batura baino handiagoa izan beharko da funtzionamendua bermatzeko.

$$d = 143,664 \text{ mm} > R_Z + R'_Z = \frac{m}{2} * \frac{Z + Z'}{1} + 2 * m$$

$$R_Z + R'_Z = \frac{5}{2} * \frac{12 + 40}{1} + 2 * 5 = 140 \text{ mm} < 143,664 \text{ mm}$$

Beraz, kalkulatuak ondo daude. 3 gurpilen arteko distantzia ondokoa izango da:

$$R_p + R_{pe} = \frac{m}{2} + (Z + Z') = \frac{5}{2} * (12 + 12) = 60 \text{ mm}$$

$$R_k + R_{pe} = \frac{m}{2} + (Z + Z') = \frac{5}{2} * (12 + 40) = 130 \text{ mm}$$

3.4.2.5. Engranajeen dimentsionaketa

Atal honetan engranaje guztien dimentsionaketa burutuko da hauek fabrikatzeko beharrezkoak diren parametro guztiak definituz.

Horretarako erabiliko diren formula guztiak Francisco Gracia Muñozen liburutik aterako dira. Lehenbizi pinoiak kalkulatu dira eta ostean koroak.

PINOIAK →

PINOIAK (Z)		HK	1	2	3	4	5	6	AM
Hortz kopurua	Z	27	12	18	23	26	29	32	12
Helizearen angelua	β	20°	20°	20°	20°	20°	20°	20°	0°
Presio angelua	α	20°	20°	20°	20°	20°	20°	20°	20°
Zabalera [mm]	$b = \psi * m$	50	50	50	50	50	50	50	50
Pausoa [mm]	$p = \pi * m$	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7
Modulua [mm]	m	5	5	5	5	5	5	5	5
R primitiboa [mm]	$R = (m/2) * (Z / \cos[\beta])$	71,83	31,93	47,89	61,19	69,17	77,15	85,13	30

Addendum-a [mm]	$h_b = m$	5	5	5	5	5	5	5	5
Deddendum-a [mm]	$h_a = m+j$	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25
Lasaiera [mm]	$j = 0,25*m$	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25
Hortzen altuera [mm]	$h = h_b+h_a$	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25
Lodiera [mm]	$s = p/2$	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85
R burua [mm]	$R_b = R+h_b$	76,83	36,93	52,89	66,19	74,17	82,15	90,13	35
R azpia [mm]	$R_a = R-h_a$	65,58	25,68	41,64	54,94	62,92	70,9	78,88	23,75
R oinarrikoa [mm]	$R_o = R*\cos\{\alpha\}$	67,5	30	45	57,5	65	72,5	80	28,2

KOROAK →

KOROAK (Z')		HK	1	2	3	4	5	6	AM
Hortz kopurua	Z	27	42	36	31	28	25	22	40
Helizearen angelua	β	20°	20°	20°	20°	20°	20°	20°	0°
Presio angelua	α	20°	20°	20°	20°	20°	20°	20°	20°
Zabalera [mm]	$b = \psi*m$	50	50	50	50	50	50	50	50
Pausoa [mm]	$p = \pi*m$	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7	15,7
Modulua [mm]	m	5	5	5	5	5	5	5	5

R primitiboa [mm]	$R = (m/2) * (Z / \cos \beta)$	71,83	111,74	95,77	82,47	74,5	66,5	58,53	100
Addendum-a [mm]	$h_b = m$	5	5	5	5	5	5	5	5
Deddendum-a [mm]	$h_a = m + j$	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25	6,25
Lasaiera [mm]	$j = 0,25 * m$	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25
Hortzen altuera [mm]	$h = h_b + h_a$	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25	11,25
Lodiera [mm]	$s = p/2$	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85	7,85
R burua [mm]	$R_b = R + h_b$	76,83	116,74	100,77	87,47	79,50	71,5	63,53	105
R azpia [mm]	$R_a = R - h_a$	65,58	105,49	89,52	76,22	68,25	60,25	52,28	93,75
R oinarrikoa [mm]	$R_o = R * \cos \alpha$	67,5	105	90	77,5	70	62,5	55	94

Biraketaren norantza aldatzeaz arduratuko den gurpila →

Atzerako martxan 3 gurpilek egingo dute lan: pinoia (Z_{am}), koroa (Z'_{am}) eta biraketaren norantza aldatzeaz arduratuko den gurpila ($Z_{x,am}$). Pinoia tarteko ardatzean kokatuko da, koroa ardatz sekundarioan, eta norantza aldatzeaz arduratuko den gurpila bi ardatz horien tartean kokatuko da, ardatz txiki batetan. Pinoia eta koroa dimentsionatuak izan dira jada, baina norantza aldatzeaz arduratuko den engranajea ez da definitu oraindik. Lan hori egingo da jarraian:

Biraketa norantza aldatzeko gurpila ($Z_{x,am}$):

- Hortz kopurua

$$Z = 12$$

- Helizearen angelua

$$\beta = 0^\circ$$

- Presio angelua

- Zabalera

$$\alpha = 20^\circ$$

$$b = \psi * m = 50 \text{ mm}$$
- Pausoa

$$p = \pi * m = 15,70 \text{ mm}$$
- Modulua

$$m = 5 \text{ mm}$$
- R primitiboa

$$R = \frac{m}{2} * \frac{Z}{\cos \beta} = 30 \text{ mm}$$
- Addendum

$$h_b = m = 5 \text{ mm}$$
- Dedendum

$$h_a = m + j = 6,25 \text{ mm}$$
- Lasaiera

$$j = 0,25 * m = 1,25 \text{ mm}$$
- Hortzen altuera

$$h = h_b + h_a = 11,25$$
- Lodiera

$$s = \frac{p}{2} = 7,85 \text{ mm}$$
- R burua

$$R_b = R + h_b = 35 \text{ mm}$$
- R azpia


$$R_a = R - h_a = 23,75 \text{ mm}$$
- R oinarrizkoa

$$R_o = R * \cos \alpha = 28,20 \text{ mm}$$

3.4.2.6. Atzerako martxaz arduratzen diren engranajeen kokapena

Esan bezala, atzerako martxan 3 gurpilek egingo dute lan: pinoia, koroa eta biraketa norantza aldatzeaz arduratuko den gurpila. Pinoia tarteko ardatzean kokatuko da, koroa ardatz sekundarioan, eta norantza aldatzeaz arduratuko den gurpila bi ardatz horien tartean kokatuko da, ardatz txiki batetan.

Jarraian ardatz horren (eta, honenbestez, gurpilaren) posizioa kalkulatu da.



Jakinekoa da tarteko ardatzaren eta ardatz sekundarioaren artean 143,667 mm egongo direla. Datu hau kontutan izanda eta hiru gurpilentzako hautatu diren hortzak eta modulua erabilita, A angeluaren balioa ezagutuko da.

$$a^2 = b^2 + c^2 - 2 * b * c * \cos A$$

b eta c distantziak ezagunak dira:

$$b = (Z_{am} + Z_{x,am}) * \frac{m}{2} = (12 + 12) * \frac{5}{2} = 60 \text{ mm}$$

$$c = (Z_{x,am} + Z'_{am}) * \frac{m}{2} = (12 + 40) * \frac{5}{2} = 130 \text{ mm}$$

Formula aplikatuz:

$$143,664^2 = 60^2 + 130^2 - 2 * 60 * 130 * \cos A$$

$$A = 90,51^\circ$$

3.4.2.7. Indarrak hortzetan


Engranajeen hortzek zenbait indar jasan behar dituzte gurpilen arteko kontaktua dela eta. Hauek maximoak izango dira motorrak momentu bihurtzaile maximoa ematen duenean. Jakinekoa da, baita, momentu bihurtzaile maximo hau 1700 bira/minututik

4000 bira/minutura bitartean emango duela motorrak. Beraz, egoera kaltegarriena (abiadura angeluar handiena duena) aztertuko da.

$$T = 275 \text{ N.m}$$

$$n = 4000 \text{ bira/minutuko}$$

Hortzen gainean eragiten duten indar hauek kalkulatzeko honako ekuazio hauek erabiltzen dira:



$$\text{Indar tangenziala: } U = \frac{T}{R}$$

$$\text{Indar erradiala: } F_R = U * \text{tg} \alpha_a$$

$$\text{Indar axiala: } F_a = U * \text{tg} \beta_a$$

$$\text{Indar totala: } W = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2}$$

Aipatzekoa da engranaje baten sortuko diren indarrak honen bikotean sortuko diren berdinak direla, hau da, kontaktuan dauden pinoian eta koroan indar berdinak sortuko dira.

Hartze konstantea \rightarrow

$$U_{hk} = \frac{T}{R} = \frac{275000 \text{ N.mm}}{71,83 \text{ mm}} = 3828,48 \text{ N}$$

$$F_{R\ hk} = U * \text{tg} \alpha_a = 3828,48 * \text{tg} 20^\circ = 1393,45 \text{ N}$$

$$F_{a\ hk} = U * \text{tg} \beta_a = 3828,48 * \text{tg} 20^\circ = 1393,45 \text{ N}$$

$$W_{hk} = \sqrt{U^2 + F_{hk}^2 + F_{hk}^2} = \sqrt{3828,48^2 + 1393,45^2 + 1393,45^2} = 4305,89 \text{ N}$$

1. abiadura \rightarrow

$$U_1 = \frac{T}{R} = \frac{275000 \text{ N.mm}}{31,93 \text{ mm}} = 8612,59 \text{ N}$$

$$F_{R1} = U * tg\alpha_a = 8612,59 * tg 20^\circ = 3134,73 N$$

$$F_{a1} = U * tg\beta_a = 8612,59 * tg 20^\circ = 3134,73 N$$

$$W_1 = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2} = \sqrt{8612,59^2 + 3134,73^2 + 3134,73^2} = 9686,58 N$$

2. abiadura →

$$U_2 = \frac{T}{R} = \frac{275000 N \cdot mm}{47,89 mm} = 5742,33 N$$

$$F_{R2} = U * tg\alpha_a = 5742,33 * tg 20^\circ = 2090,04 N$$

$$F_{a2} = U * tg\beta_a = 5742,33 * tg 20^\circ = 2090,04 N$$

$$W_2 = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2} = \sqrt{5742,33^2 + 2090,04^2 + 2090,04^2} = 6458,40 N$$

3. abiadura →

$$U_3 = \frac{T}{R} = \frac{275000 N \cdot mm}{61,19 mm} = 4494,20 N$$

$$F_{R3} = U * tg\alpha_a = 4494,20 * tg 20^\circ = 1635,75 N$$

$$F_{a3} = U * tg\beta_a = 4494,20 * tg 20^\circ = 1635,75 N$$

$$W_3 = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2} = \sqrt{4494,20^2 + 1635,75^2 + 1635,75^2} = 5054,62 N$$

4. abiadura →

$$U_4 = \frac{T}{R} = \frac{275000 N \cdot mm}{69,17 mm} = 3975,71 N$$

$$F_{R4} = U * tg\alpha_a = 3975,71 * tg 20^\circ = 1447,04 N$$

$$F_{a4} = U * tg\beta_a = 3975,71 * tg 20^\circ = 1447,04 N$$

$$W_4 = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2} = \sqrt{3975,71^2 + 1447,04^2 + 1447,04^2} = 4471,48 N$$

5. abiadura →

$$U_5 = \frac{T}{R} = \frac{275000 N \cdot mm}{77,15 mm} = 3564,48 N$$

$$F_{R5} = U * tg\alpha_a = 3564,48 * tg 20^\circ = 1297,36 N$$

$$F_{a5} = U * tg\beta_a = 3564,48 * tg 20^\circ = 1297,36 N$$

$$W_5 = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2} = \sqrt{3564,48^2 + 1297,36^2 + 1297,36^2} = 4008,96 N$$

6. abiadura →

$$U_6 = \frac{T}{R} = \frac{275000 N \cdot mm}{85,13 mm} = 3230,35 N$$

$$F_{R6} = U * tg\alpha_a = 3230,35 * tg 20^\circ = 1175,75 N$$

$$F_{a6} = U * tg\beta_a = 3230,35 * tg 20^\circ = 1175,75 N$$

$$W_6 = \sqrt{U^2 + F_R^2 + F_a^2} = \sqrt{3230,35^2 + 1175,75^2 + 1175,75^2} = 3633,17 \text{ N}$$

Atzerako martxa →

Atzerako martxaz arduratzen diren engranajeak hortz zuzendunak izango dira eta, beraz, ez dute indar axialik eragingo ($\beta = 0$):

$$F_{a\ am} = 0 \text{ N}$$

Indar tangenziala eta erradiala hortz helikoidaldun gurpiletan egin den bezala definituko dira:

$$U_{am} = \frac{T}{R} = \frac{275000 \text{ N}\cdot\text{mm}}{30 \text{ mm}} = 9166,67 \text{ N}$$

$$F_{R\ am} = U * \text{tg}\alpha_a = 9166,67 * \text{tg} 20^\circ = 3336,39 \text{ N}$$

$$W_{am} = \sqrt{U^2 + F_R^2} = \sqrt{9166,67^2 + 3336,39^2} = 9860,41 \text{ N}$$

3.4.2.8. Pinoien konprobaketa erresistentzia kontuan izanda

Behin abiadura bakoitzean gurpiletan sortuko diren indarrak zehaztu ostean engranajeak indar hauek jasateko gai diren ala ez konprobatu behar da. Horretarako soilik indar tangenziala izango da kontuan, honek eragiten duen tentsioa (makurdura) askoz handiagoa baita indar erradialak eragiten duen tentsioa (ebakitzaila) baino.

Honako ekuazioa erabiliko da konprobaketa egiteko:

$$\sigma_{makurdura} = \frac{1,115 * U}{b * m} * q \leq \sigma_{onargarria}$$

Non,

$\sigma_{onargarria}$ = Materialaren tentsio maximoa makurduran

U = Indar tangenziala

b = Hortzen zabalera

m = Modulua

q = Wissmanen koefizientea

$\sigma_{makurdura}$ = Materialak makurduran jasan dezakeen tentsio maximoa

Engranajeen modulu kalkulatzeko orduan aipatu den bezala osagai hauek egiteko aukeratu den materiala 20MnCr5 altzairu tenplatu da. Azpiko taulatik material horrek makurduran jasan dezakeen tentsio maximoa zehaztu da.

Materiala	DIN Izendapena	Trata- mendua	Trakzio erresist. σ_B	Isurpen limite minimoa σ_S	Brinell gogortasuna DB	Neke erresist. flexio alternatiboan σ_{-1}	Esfortzu onarg. abiadura medio eta altuetan $\sigma_{onarg.}$
			kg/mm ²	kg/mm ²	kg/mm ²	kg/mm ²	kg/cm ²
Burdinurta grisa	GG-18		≥ 18		150-170	± 8,5	350-450
	GG-22		≥ 22		180-220	± 11	450-550
	GG-26		≥ 26		200-220	± 12	550-650
Altzairu moldatua	GS-45	suber.	≥ 45	22	125-160	± 20	650-750
	GS-52	suber.	≥ 52	25	145-190	± 22	750-900
Makinenzak o altzairu aleatu gabea	St 50		50-60	27	145-174	± 24	850-1100
	St 60		60-70	30	174-205	± 28	1000-1250
	St 70		70-85	35	205-248	± 33	1200-1400
Altzairu zementatua aleatu gabea	Ck 15	tenp.	50-65 ¹⁾	30	600 ²⁾	± 25	1000-1250
Altzairu hobetua aleatu gabea	Ck 45	hob.	65-80	40	190-230	± 30	1100-1300
	Ck 60	hob.	75-90	49	217-265	± 35	1300-1500
Altzairu manganeso hobetua	30Mn5	hob.	80-95	55	230-270	± 38	1500-2000
	37MnSi5	hob.	90-105	65	260-300	± 45	2000-3000
	42MnV7	hob.	100-120	80	290-350	± 50	3000-4000
Altzairu zementatua aleatua	16MnCr5	tenp.	80-110	60		± 43	1900-3000
	20MnCr5	tenp.	100-130	70		± 47	2200-3400
	15CrNi6	tenp.	90-120 ¹⁾	65	600 ²⁾	± 45	2000-3000
	18CrNi8	tenp.	120-145	80		± 50	3000-4000
	14NiCrMo13-4	tenp.	105-130	100		± 50	3000-4000

$$\sigma_{onargarria} = 3400 \frac{kg}{cm^2} = 34 \frac{kg}{mm^2}$$

Wissmanen koefizientea kalkulatzeko, berriz, honako taula erabiliko da:

Ángulo de engrane $\alpha = 15^\circ$	Dentado exterior	z															
		13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25			
		q	5,4	5,2	5,1	4,9	4,8	4,7	4,6	4,5	4,4	4,3	4,2	4,1	4,1		
	Dentado interior	z	26	28	30	33	36	40	48	60	76	100	140	200	∞		
		q	4,0	3,9	3,8	3,7	3,6	3,5	3,4	3,3	3,2	3,1	3,0	2,9	2,8		
Ángulo de engrane $\alpha = 20^\circ$	Dentado exterior	z	10	11	12	13	14	15	16	17	18	21	24	28	34		
		q	5,2	4,9	4,6	4,4	4,1	3,9	3,8	3,6	3,5	3,3	3,2	3,1	3,0		
	Dentado interior	z	40	50	65	80	100	∞									
		q	2,9	2,8	2,7	2,6	2,5	2,5									
	Dentado interior	z	∞	200	100	70	50	38	30	24	20						
		q	2,5	2,4	2,3	2,2	2,1	2,0	1,9	1,8	1,7						

Ikus daitekeenez, q -ren balioa hertz kopuruaren arabera izango da. Beraz, interpolazioak burutu beharko dira koefiziente honek abiadura bakoitzean duen balioa kalkulatzeko.

Hartze konstantea \rightarrow

q_{hk} kalkulatzeko:

$$Z_{hk} = 27 \text{ hertz}$$

$$Z_{n\ hk} = \frac{Z_{hk}}{\cos \beta^3} = 32,54 \rightarrow 33 \text{ hertz}$$

$$q_{hk} = 3,01$$

Gainontzeko datuak:

$$U_{hk} = 3828,48 \text{ N} = 390,26 \text{ kg}$$

$$b = 50 \text{ mm}$$

$$m = 5 \text{ mm}$$

$$\sigma_{makurdura\ hk} = \frac{1,115 * 390,26}{50 * 5} * 3,01 = 5,24 \text{ kg/mm}^2$$

$$\sigma_{makurdura\ hk} = 5,24 \frac{\text{kg}}{\text{mm}^2} < \sigma_{onargarria} = 34 \frac{\text{kg}}{\text{mm}^2}$$

Hortaz aukeraketa egokia da.

1. abiadura \rightarrow

q_1 kalkulatzeko:

$$Z_1 = 12 \text{ hertz}$$

$$Z_{n1} = \frac{Z_1}{\cos \beta^3} = 14,46 \rightarrow 14 \text{ hertz}$$

$$q_1 = 4,1$$

Gainontzeko datuak:

$$U_1 = 8612,59 \text{ N} = 877,94 \text{ kg}$$

$$b = 50 \text{ mm}$$

$$m = 5 \text{ mm}$$

$$\sigma_{makurdura\ 1} = \frac{1,115 * 877,94}{50 * 5} * 4,1 = 16,05 \text{ kg/mm}^2$$

